

**OSAKIDETZA – EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUAREN
OHIKO BILERAREN AKTA
2026KO OTSAILAREN 10EAN**

2026ko otsailaren 10ean, 12:30ean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da erakunde publiko horren Zuzendaritza Nagusian (Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz). Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kontseiluburuak deialdia egin ondoren, kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua, kontseiluburua; **Gontzal Tamayo Medel jauna**, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea; **Aritz Uriarte Fuertes jauna**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**.

Ezin etorria adierazi du **José Enrique Corchón Álvarez jaunak**, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politika eta Aurrekontuetako sailburuordeak, eta botoa eta ordezkaritza eskuordetu dizkio **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunari**, Aurrekontuen zuzendaria (erantsita dago ordezkaritza emateko agiria).

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek osoko bilkura eratu dute, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta aldez aurretik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusi **Lore Bilbao Artetxe andrea**, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENA.– 2025eko abenduaren 16ko bileraren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onartzen dute 2025eko abenduaren 16an egindako bileraren akta.

BIGARRENA.– 2026ko otsailaren 4ko bilkurako akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onartzen dute 2026ko otsailaren 4an egindako bileraren akta.

HIRUGARRENA.– Zerbitzu-erakundeetako 2025eko abenduaren 31eko egiturazko plantillari buruzko informazioa.

Egiturazko plantillen onespeneren osagarri gisa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 1998ko abenduaren 11ko Erabakiak arau arrunt batzuk ezartzen ditu, batetik, erakundeetan kudeaketa-eskuduntzak gauzatzea errazteko, eta, bestetik, ente publikoan pertsonalaren kudeaketak duen eragin ekonomikoaren kontrola eta jarraipena arintzeko.

Ondorio horietarako, aipatutako erabakian berariaz jasotzen da ente publikoko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onartu behar dela lanpostuak erakunde batzuetatik beste batzuetara fisikoki lekualdatzea. Lekualdatze horiek aldaketak eragiten dituzte dagozkion plantilletan, eta, ondorioz, haien berri eman beharko zaio Administrazio Kontseiluari, eta organo horrek berretsi egin beharko ditu. Zehazki, hilabetearen azken eguneko egoera jakinarazi beharko zaio.

2025eko urriko egiturazko plantillari buruzko txostena bidali zenetik, hainbat lanpostu aldatu izan dira aldian-aldian zerbitzu-erakunde batzuetatik besteetara, erakunde horiek asistentzia-eta kudeaketa-programak aurrera eramateko beharrezko dituzten giza baliabideez hornitze aldera. Berriazko araudian xedatutakoa betetze aldera, beraz, idazki honekin batera bidaltzen dizuegu konparazio-koadro bat. Koadro horretan jasota daude, bada, 2025eko urrian zerbitzu-erakunde bakoitzari atxikita zeuden efektiboen kopuruak eta efektibo horietan izandako aldaketak aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren ondorioz eta **2025eko urritik 2025eko abenduaren 31ra bitartean** izandako lekualdatzeen ondorioz.

Konparazio-taula erantsi da akta honen I. eranskin gisa. Bertan, erakunde bakoitzari atxikitako talde profesional bakoitzeko langile kopuruaren zerrenda jasotzen da, 2025eko urritik 2025eko abenduaren 31ra bitarteko hilabetei dagokienez, bai eta langile-esleipen horrek izan dituen aldaketak ere.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

LAUGARRENA.– Erabaki-proposamena, Zuzendaritza Nagusiaren egitura aldatzeari buruzkoa, eta onartzea, hala badagokio.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak honako hau ezartzen du lehenengo xedapen gehigarrian: "(...) zuzendaritza eta kudeaketako organoak behin eratu ondoren, langileria egituratzeko eta antolatzeko behar diren erabakiak hartu ahal izango ditu". Bestalde, dekretu horren I. eranskinaren 8. artikuluan ezartzen denez, Administrazio Kontseiluari dagokio, besteak beste, "Ente publikoaren antolakunde nagusiak aurrera egiteko behar dituen egitura organikoa eta jardun-arauak onartzea, zuzendari nagusiaren proposamenez eta Estatutuetan ezarritako arauekin bat. Gainera, ente publikoaren zerbitzu-erakundeari dagokionez Estatutu Sozialek esleitu dizkion antolamendu-garapenerako arauak eta irizpideak onartzea".

Ente Publikoak eta Osasun Sailak sustatutako helburu estrategikoei eta osasun-sistemaren eraldaketari ekin ahal izateko, eredu jasangarri bat behar da, kalitate handikoa eta epe ertain/luzera efizientea izango dena, sistema sanitario publiko, unibertsal eta bikainekoa bermatuko duena eta osasun mentala eta eraldaketa digitala bezalako erronkei helduko diena.

Hala, erronka horiei aurre egin ahal izateko, ente publikoaren Zuzendaritza Nagusia berregituratu behar da. Horrek berarekin dakar, alde batetik, uneko egitura berrantolatzea; bestetik, bi zuzendariordetza berri sortzea, zeinek lagunduko baitute Osasun Itunean antolakuntza-berrikuntzari dagokionez finkatutako eta onartutako estrategiak betetzen, bai eta egitura-modelo arinago eta eraldatzaileago batera bideratzen ere.

Organigrama-proposamen bat aurkeztu da, Akordioari erantsita. Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzari dagokionez, organigraman "Araubide Juridikoko Zuzendariordetza" izena

jartzea proposatzen da. Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzak proposatu du Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetza izena mantentzea, izen horretan sartzen baitira zuzendariordetzaren beraren eginkizunak, eta aho batez onartu da proposamena.

Administrazio Kontseiluak onartu egin du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak aurkeztutako proposamena, Zuzendaritza Nagusiaren egungo egitura berrantolatzekoa, eta indarrik gabe utzi du Kontseiluak onartutakoarekin bat ez datorren beste edozein egitura. Akta honen II. eranskinean jaso da egitura berriaren organigrama.

Erabaki da Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari baimena ematea neurriak har ditzan, bere eskumenen esparruan, Administrazio Kontseilu honi aurkeztutako memoriarekin bat datorren antolakuntza-egitura berria gauzatzeko. Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

BOSGARRENA.– Antolamendu Sanitarioaren Legearen kategorien babesean titulazio berriak sartzeko eta, hala badagokio, onartzeko erabaki-proposamenak.

Gai-zerrendako puntu hau ez da aurkeztu Administrazio Kontseiluan.

SEIGARRENA.– Erabaki-proposamena, eta, hala badagokio, onartzekoa, Hautaketa eta Hornikuntzako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsio bati buruzkoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Kalitateko zuzendariordea izendatzen duen Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 14ko 1591/2025 Ebazpenaren aurkakoa.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 14ko 1591/2025 Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsio bat jartzeari buruzko erabaki-proposamen bat aurkeztu da. Ebazpen horren bidez, Osakidetzako Kalitateko zuzendariordea izendatzen da, lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituela irizita.

Bidezkoa da gora jotzeko errekurtsioa ezestea, aukeratutako hautagaiak lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen baititu.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

ZAZPIGARRENA.– Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordetzaren bi gora jotzeko errekurtsio onartzeko erabaki-proposamenak.

Gora jotzeko 2 errekurtsori buruzko 2 erabaki-proposamen aurkeztu dira:

- Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu da telelana ukatzearen aurka. Errekurtso horretan, erreklamatzailerak alegatzen du telelana emateko baldintzak betetzen dituela.

Errekurtsoa **ezetsi** egin behar da, ez baititu betetzen bere lanpostuan telelana egiteko baldintzak.

- Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu da antzintasunagatik norberaren gauzetarako baimen osoa ukatu zaiolako. Isiltasunez baietsi dela alegatzen da.

Errekurtsoa **ezetsi** egin behar da, ebazpena epe barruan eman eta jakinarazi delako.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onartu dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

ZORTZIGARRENA.– Lanbide-garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetzaren erabaki-proposamena egitea eta, hala badagokio, onartzea, Administrazio Kontseiluaren 2025eko irailaren 24ko erabaki bat ezeztatzeari buruz, zeina zuzendari nagusiaren ekainaren 12ko 984/2024 Ebazpenaren aurkakoa baita. Ebazpen horren bidez, lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebazten dira.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2025eko irailaren 24ko erabakia ezeztatzeko erabakia aurkeztu da. Erabaki horrek ezetsi egiten du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 12ko 984/2024 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa (2024ko deialdia).

Ezeztatu egin behar da Administrazio Kontseiluaren 2026ko irailaren 24ko Erabakia, jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezetsi zuena; horrela, errekurtsio hori baiesten da eta erreklamaturako

lanbide-garapeneko III. maila esleitzen da, ordainketa-ondorioak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanik.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

BEDERATZIGARRENA.– Erabaki-proposamenak egitea eta, hala badagokie, onartzea, Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsio batzuei buruz, zeinak Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpen batzuen aurka jarri baitziren. Ebazpen horien bidez, 2020-21-22ko EPEan hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen, bai eta destinoak eta izendapenak esleitu ere, zenbait kategoriatan.

Guztira 84 erabaki-proposamen aurkeztu dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioei dagozkienak. Ebazpen horien bidez, Egonkortzeko EPEaren eta 2020-2021-2022ko EPEaren barruan hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen eta izendapenen esleipena argitaratu ziren, kategoria hauetan:

- Biologiako FEMT
- Optikan eta oftalmologian diplomaduna
- Osasun Mentaleko erizaina
- Erizaina
- Dokumentazio sanitarioko tek. esp.
- Administraria
- Zeladoreak
- Erradiodiagnostikoko Teknikari Espezialista
- Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako FEM
- Psikologia Klinikoko FET
- Barne-medikuntzako FEM
- Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria
- Gizarte-langilea
- Erradioterapiako teknikari espezialista
- Administrazio eta Erabiltzailearen Arretako Laguntzailea
- Laborategiko teknikari espezialista

- Erizaintzako Laguntzailea
- Administraziooko eta kudeaketako erdi-mailako teknikaria (arkitekto teknikoa)

- Bidezkoa da gora jotzeko 64 errekurtsio **baiestea**, honako arrazoi hauengatik:
 - ✓ Prestakuntza: 20 errekurtsotan, prestakuntzaren atalean puntuazio handiagoa eskatu da. Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, puntuazioa gorantz aldatzea erabaki da, eta errekurtsioak baietsi dira.
 - ✓ Esperientzia: 19 errekurtsotan, hainbat zerbitzu-aldi zenbatzeko eskatzen da. Berrikusi ondoren, horiek zenbatu egin behar direla egiaztatu da, eta errekurtsioak baietsi egin dira.
 - ✓ Prestakuntza eta esperientzia: Errekurtsio batean, emandako hainbat zerbitzu-aldi zenbatzeko eta prestakuntza-atalean puntuazio handiagoa lortzeko eskatzen da. Bidezkoa da errekurtsio hori baiestea, emandako zerbitzuak eta eskatutako prestakuntza kontuan hartuta.
 - ✓ Euskara: 2 errekurtsotan, euskararen hizkuntza-eskakizuna baloratzeko eskatzen da. Egiaztatu da euskara-eskakizunaren egiaztagiriak epe barruan aurkeztu zirela, eta, beraz, merezimendu gisa baloratu behar dira hautaketa-prozesuaren lehiaketa-fasean, eta errekurtsioak baietsi.
 - ✓ Prestakuntza eta Euskara: Errekurtsio batean, puntuazio handiagoa eskatu da aurkeztutako euskara-eskakizunaren prestakuntza- eta balorazio-atalean. Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, prestakuntzako puntuazioa gorantz aldatzea erabaki da. HEari dagokionez, epe barruan aurkeztu zela egiaztatu da, eta merezimendu gisa baloratu da hautaketa-prozesuko lehiaketa-fasean. Beraz, errekurtsioa baietsi egin da.
 - ✓ Destinoen hautaketa osatugabea: 6 errekurtsotan, erresulta-fasean destinoak lortu ahal izatea eskatzen da. Kasu horietan, egiaztatzen da ezen, nahiz eta eskainitako destino guztiak hautatu zituzten (eskatutako baldintzak betetzen zituzten guztiak), ez zirela horietako bakar baten esleipendun izango, eta, beraz, bidezkoa dela izangaiak hautaketa-prozesuan sartzea eta erresulta-fasean parte hartzea; hau da, errekurtsioak baiestea.

- ✓ Destinoen esleipena adimen-desgaitasunaren kupoagatik eta desgaitasunaren kupoagatik - beste desgaitasun batzuk: Errekurtso batean, adimen-desgaitasunaren kupoan parte hartzen duen izangai batek destino-esleipendun izatea eskatzen du, lortutako puntuazioaren arabera. Desgaitasun-kupoa osatzen duten pertsonen destinoa ez esleitzea akats baten ondorioz gertatu zen, eta dagozkien destinoak desgaitasuna duten izangaien artean esleituko dira, lortutako puntuazio-ordenari jarraituz. Bidezkoa da errekurtsoa baiestea.
- ✓ Titulua: 11 errekurtsotan, aurkeztutako titulazioak deialdiko baldintzak betetzen dituztela onartzea eskatzen da. Egiaztatu da izangaiak behar bezala eta epearen barruan egiaztatu zutela deialdian eskatutako titulazioa zutela. Beraz, errekurtsoak baietsi egin behar dira.
- ✓ Nazionalitatea: Bi errekurtsotan hautaketa-prozesuan onartuak izateko eskatzen da. Egiaztatu da izangaiak nazionalitate espainiarra dutela. Horregatik, bidezkoa da errekurtsoak baiestea eta izangaiak hautaketa-prozesuan sartzea.
- ✓ It txartela: Errekurtso batean eskatzen da egiaztatutzat jo dadila IT Txartela duela. Izangaiak kategoriaren deialdian eskatutako IT txartela duela egiaztatu da, eta errekurtsoa baietsi egin da.
- ✓ Bidezkoa da gora jotzeko 19 errekurtso **partzialki baiestea**, honako arrazoi hauengatik:
 - ✓ Prestakuntza: 12 errekurtsotan, prestakuntzaren atalean puntuazio handiagoa eskatu da. *Epaimahai kalifikatzaileak egindako berrikuspenaren ondoren, erreklamaturako puntuazioaren zati bat gorantz aldatzea erabaki da, eta errekurtsoak partzialki baiestea.*
 - ✓ Esperientzia: Errekurtso batean, hainbat zerbitzu-aldi zenbatzeko eskatzen da. Partzialki baietsi behar dira, berrikusi ondoren, eta esperientziaren ataleko puntuazioa gorantz aldatzea erabaki da, baina errekurtsogileak eskatutako guztizko puntuazioa lortu gabe.

- ✓ Prestakuntza eta esperientzia: 5 errekurtsotan, emandako hainbat zerbitzu-aldi zenbatzeko eta prestakuntza-atalean puntuazio handiagoa lortzeko eskatzen da. Bidezkoa da errekurtsok partzialki baiestea, erreklamaturakoaren zati bat baietsita, dela esperientziaren atalean, dela prestakuntzaren atalean.
- ✓ Destinoen hautaketa osatugabea: Errekurtsok batean, erresulta-fasean destinoak lortu ahal izatea eskatzen da. Kasu honetan, oposizio-lehiaketaren sistemari dagokionez, egiaztatu da ez zituela destino guztiak hautatu, nahiz eta destinoaren esleipenduna izan, hala egin izan balu. Hala ere, lehiaketa-sistemari dagokionez, ez zen destino-esleipenduna izango, destino-aukeraketa behar bezala egin izan balu ere. Lehiaketa-sistemari dagokionez, errekurtsok baietsi behar da, eta bidezkoa da izangaia hautaketa-prozesuan sartzea eta erresulta-fasean parte hartzea, eta errekurtsok partzialki baiestea.
- ✓ Gora jotzeko errekurtsok bateko **etetea ukatu** behar da arrazoi honengatik:
 - ✓ Errekurtsok horretan, aurkaratutako ebazpenak kautelaz eteteko eskatzen da. Bidezkoa da eskatutako etendura ukatzea, errekurtsogileek ez dituztelako behar bezala egiaztatu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako inguruabarrak, zeinek aurkaratutako egintzaren betearazpena eteteko ahalmena ematen baitute. Zehazki:
 - 1) Betearazpenak kalte erreparaezinak edo erreparagaitzak ekartzea.
 - 2) Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onartu dituzte aurkeztutako Erabaki-proposamenak.

HAMARGARRENA.– Informazioa, eskaerak eta galderak.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2026ko otsailaren 10eko 13:15ean.



Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio
Idazkaria



Izpta.- Alberto Martínez Ruiz
Kontseiluburua
Osasun sailburua
O.E.

I. ERANSKINA

OSAKIDETZAKO ZERBITZU-ERAKUNDEA	GUZTIRA		A1 Fakultatiboa Med. eta Tek.		A2 Teknikaria Goi-m.		B1 Diplomaduna Sanitaria		B2 Tekn. Erdi-m.		C1 Tek. Espez. Sanitaria		C2 Tek. Espez. Admin.		C3 Tek. Espez. Profesionala		D1 Tek. Lag. Sanitaria		D2 Tek. Lag. Admin.		D3 Tek. Lag. Profesionala		E1 Mendekoa Langilea		PD Lanpostua Zuzend.			
	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE	URR	ABE
	ANTOLAKUNDE NAGUSIA	858	1.017	108	149	296	345	96	123	15	13	11	17	94	100	38	44	22	24	141	152	16	2	21	48	4	4	
EMERGENTZIAK	368	401	101	111	5	5	118	134					16	16	3	3			60	60	54	71	1	1	2	2		
ARABAKO ESI	4.521	4.849	1.085	1.137	41	44	1.415	1.521	25	23	212	228	61	65	62	63	666	737	443	469	58	71	453	491	6	6		
ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	422	432	67	70	5	5	99	103	15	15			21	22	2	3	142	142	3	3	10	10	58	59	5	5		
ARABAKO ERROXAKO ESI	189	193	23	25	1	1	61	63	3	3	3	3			8	8	29	29	22	22	5	5	34	34	2	2		
DEBAGOIENeko ESI	604	643	182	183	9	9	193	212	1	2	22	24	7	7	7	7	70	82	66	71	7	7	40	39	5	5		
TOLOSALDEKO ESI	230	232	70	70	5	5	84	84	3	3	5	5	4	5	2	2	6	6	40	41			11	11	2	2		
DONOSTIALDEKO ESI	5.437	5.948	1.309	1.419	58	71	1.785	1.946	20	22	286	335	122	156	42	47	793	895	452	456	76	80	494	521	6	6		
BIDASOKO ESI	691	744	215	220	6	8	232	265	9	7	29	30	13	15	2	2	74	81	73	77	2	2	36	37	5	5		
GOIERRI-JUOLA GARAIKO ESI	941	983	262	267	9	10	335	360	5	5	33	37	11	11	6	7	114	117	93	97	13	12	60	60	5	5		
DEBABARENeko ESI	963	974	235	239	14	15	319	319	5	4	38	38	14	14	9	9	152	156	91	95	7	7	79	78	5	5		
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA	189	192	94	96	4	4	48	49	16	16			2	2	2	2			23	23					2	2		
URIBEKO ESI	1.562	1.627	435	465	11	13	487	512	2	2	54	57	11	12	7	7	196	200	190	192	15	15	154	152	5	5		
TRANSF. ETA GIZA EH. E. ZENTROA	131	139	31	31			34	40			43	45	7	7					3	3	13	13			2	2		
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA	991	1.009	233	240	16	18	181	187	47	50			17	18	18	19	266	266	74	76	21	19	118	116	5	5		
SANTA MARINA OSPITALEA	477	495	62	64	8	8	130	141	2	3	8	8	13	13	7	7	122	126	17	17	7	8	101	100	5	5		
GORLIZKO OSPITALEA	341	364	34	38	7	8	108	122	3	2	2	2	4	4	4	4	99	103	17	17	6	8	57	56	5	5		
BILBO-BASURTUKO ESI	4.444	4.712	1.150	1.184	45	47	1.445	1.562	16	16	197	219	78	80	15	15	627	676	396	425	54	54	421	434	6	6		
BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI	3.082	3.353	889	941	33	36	1.003	1.111	10	10	138	149	40	44	17	17	331	381	304	316	48	50	269	298	6	6		
BARAKALDO-SESTAOKO ESI	1.036	1.086	274	283	13	15	361	377	3	3	42	44	9	10	3	3	126	138	128	131	15	16	62	66	5	5		
EZKER-ENKART-GURUTZETAKO ESI	4.975	5.209	1.239	1.298	66	67	1.629	1.717	23	25	290	299	64	72	27	28	829	879	393	397	57	60	358	367	6	6		
AZPI-GUZTIZKOA	32.442	34.602	8.098	8.530	652	734	10.163	10.948	223	224	1.413	1.540	608	673	281	297	4.664	5.038	3.029	3.140	484	510	2.827	2.968	94	94		
GUZTIZKOA (Zuzendariak barne)	32.536	34.696	8.098	8.530	652	734	10.163	10.948	223	224	1.413	1.540	608	673	281	297	4.664	5.038	3.029	3.140	484	510	2.827	2.968	94	94		
GEHIENeko LANGILEAK * *	34.602	34.602	8.530	8.530	734	734	10.948	10.948	224	224	1.540	1.540	673	673	297	297	5.038	5.038	3.140	3.140	510	510	2.968	2.968				

* Gobernu Kontseiluak 2025eko abenduaren 16an egindako bilera hartutako erabakiaren arabera. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoak egiturazko langile-kopururi degokionez laburde-taldearen arabera izan ditzakeen gehieneko mugak aldatzen dituen Erabakia onartzen da.

II. ERANSKINA

